

KOSTUEN EGITURA

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeak dakartzan kostu guztien multzoa da. Mota ezberdinetako kostuak daude: finkoak, aldakorak, eskala-ekonomiak eta hedadura-ekonomiak.

Nabarituko den diru-inbertsioetako bat gure produktua ekoizteko erabiliko ditugun materialetan izango da. Adostu dugunaren arabera, erabiliko den materialetako bat kortxoak izango da; horrekin ekoiztuko da aterkiontzia kanpokaldea. Material hori urari aurre egiteko egokia da, ez baita hondatzen urarekin kontaktuan sartuz gero, hortaz, aterkiontzia egonkorak izango dira. Gastu hau izango da garrantzitsuenetariko bat, eta kostu aldakor bat izango da, ekoizpenaren bolumenaren arabera aldatuko delako.

Hasiera batean, webgunea bakarrik izango dugu salmenta-bide bezala, baina, adostutakoaren arabera, gure enpresak arrakasta izaten badu eta hazten bada, ziur aski lokal bat ere izango dugu, salmenta-prozesua burutzea errazagoa izateko. Lokalean, gure produktuaren diseinu ezberdinak egongo dira ikusgai eta saltzeko prest. Lokala edukitzeagatik, horren alokairua kostu finko bat izango litzateke (lokaleko argia, wifia, telefonoa, gasa...). Lokalarekin lotutako beste diru-inbertsio bat izango da haren mantentze-lanak eta konponketek suposatuko dutena.

Kontuan hartzekoa da ere bai Ezpeleta izeneko enpresarekin egingo dugun aliantzari esker lortuko dugula salmenta gehienak burutzea. Enpresa honek, azken finean, laguntza emateaz gain, gure produktuari publizitatea egingo lioke baita ere. Hori horrela izanda, dirua ere inbertitu beharko dugu Ezpeleta enpresan, eta hori kostu nagusi eta orokorrenetako bat izango da.


KOSTUEN TAULAK

Hasieran, finantzatuz lortuko dugu dirua proiektuarekin aurrera egin ahal izateko. Ekoizpen kostuak (Material pack-a)

PRODUKTUA	Pack 1	Kopurua	Hilabeteko kostua	Urteko kostua
Kortxo-lamina	47,99 € (4 m, 4mm sendoera)	50	2.399,5 €	28794 €
Aluminio berrerabilia	14.75 € 10cm x 10cm	50	737.5 €	8850 €
Belakiak	27.00 €	50	1.350 €	16200 €
GUZTIRA	89.74 €	150	4.487 €	53.844 €

Unitate baten ekoizpen kostua (21 cm x 11 cm)

MATERIALA	PREZIOA
Kortxoa	2.5 €
Aluminio berrerabilia	15.48 €
Belakiak	5.4 €
GUZTIRA	23.38 €



Webgunearen kostua

Kontratazioa	Web-aren sorkuntza	Mantenimendua (produktu berriak, edozein arazo...)
Web garatzaile agentzia bat	3000 euroko ordainketa bakarra	2000 euroko urte osoko ordainketa

Irabaziak

Gure produktua 65 eurotan saltzen dugula suposatuz:

Unitateko diru-sarrerak	Egun batean saldutako kopurua	Hilabetean saldutako kopurua	Web gunearen inbertsioa diru sarreren %15era bideratu	ETEKINA
41.62 €	5	60	8,32 €	